

## Bilbon, 2005.eko urtarrilaren 28an

Andres Urrutia, euskaltzainburua,  
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,  
Xabier Kintana, idazkaria,  
Jose Luis Lizundia, diruzaina,  
Henrike Knörr, Iker sailburua,  
Andres Iñigo, Jagon sailburua,  
Jose Antonio Arana,  
Adolfo Arejita,  
Patxi Goenaga,  
Jean Haritschelhar,  
Emile Larre,  
Txomin Peillen eta  
Pello Salaburu euskaltzainak,  
Pello Telleria, idazkariordeari zegozkion  
gaietan.

**Ezin etorriak eta ahalak:** P. Ondarra,  
Jean-Louis Davant, ahala Tx. Peilleni, P.  
Zabaleta, ahala A. Iñigori.

Batzarra goizeko 9,35ean hasi da Euskaltzaindiaren egoitzako batzar gelan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

### 1. Jean Haritschelharri eskerrak

A. Urrutia euskaltzainburu berriak bilduriko euskaltzainak agurtu ditu, eta guztien izenean J. Haritschelharri eskerrak eman dizkio azken urteotan Euskaltzaindiaren gidaritzan egindako lan bikainagatik

**2. Aurreko akta onartzea.** Oharrik gabe onartu da.

### 3. Eskuartekoak

**3.1. Jose Mari Larrarte** euskaltzain ohorezkoaren hilberri-txostena Jose Antonio Mujika euskaltzain urgazle eta Gramatika batzordekideak egingo du.

**3.2. Jose Garmendia** euskaltzain urgazlea urtarrilaren 19an hil dela jakinarazi da, 79 urterekin. Haren senideei doluminak adieraziko zaizkie, eta hilberri txostena J. L. Lizundiak egingo dio. Maiatzean irakurriko dira bi hilberri-txosten horiek.

**3.3. Akitaniako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak** (Conseil Economique et Social) deiturik, urtarrilaren 18an, arratsaldean, J. Haritschelhar eta B. Oihartzabal Borden izan ziren Euskaltzaindiaz eta euskarari buruzko ikerketez informazioa emateko. Batzorde hori txosten bat prestatzen ari da Akitaniako hizkuntzez, eta horregatik deitu zituen Euskaltzaindiaren bi ordezkari horiek. Bi euskaltzainei harrera ona eman zitzaion, eta hauek Euskaltzaindiaren Oroitidazkia eman zioten Batzordeko buruari beren esanen eta ageraldiaren lekuko.

### 4. Hizkuntza gaiak

«Herri-izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilera» araua euskaltzainen artean banatu da.

**4.2. Hiztegi Batua:** *b-berriz* zerrendari egin zaizkion oharrak aztertzen eta eztabaidatzen jarraitzea. *Behar1*-etik *belarkari*-ra arteko hitzak aztertu eta onartu dira. Horien artean *behortzain* hitza onartu da eta Jose Luis Lizundiak, *behortzain* forma ere Hegoaldeko leku askotan esaten dela aktan konstatatzea eskatu du.

### 5. Azken ordukoak.

Urtarrilaren 27an Euskaltzaindiaren egoitzan egindako kargu-aldaketa ekitaldiaren prentsa dosierra banatu da.

Andolin Eguzkitzari Bilboko Euskalduna jauregian urtarrilaren 22an eskaini zitzaion omenaldiaren eta katalan hiztegi digital berriaren prentsa-dosierrak ere banatu dira.

Bukaeran, Rikardo Badiola, argitalpen eragileak, ondoko argitalpenak banatu ditu:

– *Euskera 2004, 1*

– *Euskera 2004, 1* (separatak)

– *Jose Mari Satrustegi: Nafarroako euskararen ikurra* (Andres Iñigo - Patxi Salaberri).

– *Bidegileak*: J. M. Satrustegi, A. Eguzkitza, J. M. Jimeno Jurio, J. Atxabal.

Bilkura 14etan amaitu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria